

549/2022 EBAZPENA, ekainaren 23koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez hutsik geratzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Juridikoko Arloan Administrari Laguntzaile lanpostu bat betetzeko deialdia.

AURREKARIAK

Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 26ko 401/2022 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Juridikoko Arloan Administrari Laguntzaile lanpostu bat aldi baterako barne-sustapenaren bidez / zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko deialdia egin zen (webgunean argitaratu zen 2022ko maiatzaren 2an).

EBAZTEN DUT:

Hutsik uztea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Aholkularitza Juridikoko Arloan Administrari Laguntzailea lanpostua aldi baterako barne-sustapenaren bidez / zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko deialdia, izangairik ez dagoelako.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Osakidetza zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 23a



Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA